

Eskola hezkidetzatik birpentsatzea

Partaidetzan oinarritutako autodiagnostikoen bitartez, hezkidetza planak prestatzeko gida metodologikoa.



ALBOAN

ONG • Jesuita • Fundazioa





ALBOAN

ONG • Jesuita • Fundazioa

www.alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio, 2 - 2.

48008 Bilbo

☎ 944 151 135

Donostia

Andía, 3

20004 Donostia

☎ 943 275 173

Vitoria-Gasteiz

Estenaga Apezpikua, 1

01002 Vitoria-Gasteiz

☎ 945 202 676

Iruñea

Barañain Etorbidea, 2

31011 Iruñea

☎ 948 231 302

Eskola hezkidetzatik birpentsatzea

Gida metodologikoa, ikastetxearen partaidetzako autodiagnostikoen bitartez hezkidetzako planak prestatzeko.

Egilea: **ALBOAN**: Amaia Alberdi, María Lezáun eta Zigor Uribe-Etxebarria.

Data: 2020ko martxoa

Ilustrazioak: Ekilikua


Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Fundazioa



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu.

Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>



Aurkibidea

01. Sarrera

4

02. Geure buruak hezkidetzaren betaurrekoekin BERRIKUSTEA

5

03. Hasi aurretik, zer da hezkidetza guretzat?

6

Orduan, nolakoa da eskola hezkidetailea?

04. Eraldatzeko diagnostikatzea: autodiagnostikoa laneko metodologia gisa

7

Zertarako egiten dugu autodiagnostikoa?

Nor da gure hezkidetzako autodiagnostikoaren subjektua?

Zer aztertu nahi dugu?

Zenbat iraungo du prozesu osoak?

05. Nola eraikitzen dugu autodiagnostikoa? Hasierako urratsak

8

Talde eragilea osatzea

Autodiagnostiko Plana egitea

Ebidentzien azterketa eta prozesuaren sistematizazioa

Autodiagnostikoa ikastetxean sozializatzea

06. Eta orain, zer? Hezkidetza Planaren diseinua

14

Zertarako egiten dugu Hezkidetza Plana?

Planaren diseinua

07. Diagnostiko eta hezkidetza-plan egokiak prestatzeko gomendioak

16

08. Autodiagnostikorako tresna: behaketa eta azterketa errazteko 5 bloke

18

1. Blokea: Irakaskuntzako eta ikaskuntzako eredua, erakundearen politikak eta ekintza-planak

2. Blokea: Ikastetxearen egitura eta antolamendua

3. Blokea: Eskola- eta curriculum-jarduerak

4. Blokea: Ikastetxeko guneak, imajinarioak eta kultura

5. Blokea: Norbera zaintzea, elkar zaintzea eta ingurunea zaintzea

01. Sarrera

Sortu zenetik, **ALBOAN** erakundeak hezitzaile eta ikastetxeei laguntza eman die, eredu tradizionalaz bestelako hezkuntza mota baterantz aurrera egiteko. Hezkuntza horretan, gure haur eta gazteek aukera izango dute beren nortasunaren alderdi guztiak erabat eta askatasunez garatzeko, eta berdintasuna, ekitatea, lankidetzaz, aniztasuna, eta zainketa erdigunean jarriko dira. Azken batean, hezkuntza horrek aukera emango du gure mundu globalak behar duen eraldaketa pertsonal eta sozialarekin konprometitutako herritarrek sortzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da gure hezkuntza-jarduna eta eskola-eredua berrikusi eta birpentsatzea; izan ere, hezkuntzaren ikuspegi androzentriko eta instrumentalak markatzen du eredu hori, eta sexismoa eta gure gizartean dauden genero-estereotipoak errepikatzen jarraitzen du. Alderdi horiek egunerokoak dira eta oso errotuta daude; horregatik, inor konturatu gabe gertatzen dira, baina beharrezkoa da modu kritiko eta eraikitzailean berrikustea. Besteak beste, hauek dira alderdiok: ikastetxearen antolamendua, curriculum akademikoa, testuliburuak eta material pedagogikoa, irakaskuntzako metodologiak, irakasleen jarrera eta itxaropenak, hizkuntza, harremanak, tokien kudeaketa...

Gure lana kritikoki berrikusi eta birpentsatzea ez da erraza, baina merezi du ahalegina egitea. Hezkidetzaren ikuspegiak etorkizunerako aukera berri asko ematen dizkigu lanerako; horri esker, ikasgelan eta gurekin lankidetzan dauden taldeetan aurkitu ohi ditugun arazo asko ulertu ditzakegu, bai eta beroriei erantzuna eman ere. Aldi berean, ikastetxeetan dagoeneko dauden zenbait ekimen eta jardunbide aintzat hartu eta garrantzitsutzat jo ditzakegu, lehenago hezkidetzaren arlokotzat identifikatu izan ez arren.

Gida honekin, bultzada eman nahi zaio benetako eskola hezkidetzalea lortzeko ahalegin kolektiboari. Gida honek pentsamendu feministak sortutako lan teoriko guztitik eta hezkuntzaren arloan horrek izandako garapenetik edaten du; alabaina, asmoa ez da ekarpenak teoriatik egitea, konponbide praktikoak ematea baizik. Konponbideok esperientzia zehatzek sortutako ikaskuntzatan oinarritzen dira, hain zuzen ere, **ALBOAN** erakundeak, azken urteotan, Euskadiko zenbait ikastetxeri hezkidetzako autodiagnostikoko prozesuetan emandako laguntzan sortutakoetan. Askotariko ikastetxeak ausartu dira beren hezkuntzako jardunbideen berrikuspen kritikoan esperimenez eta bidea zabaltzera. Bihotz-bihotzez eskertzen diegu, esperientzia partekatzeagatik. Mila esker!



Gida honetan, autodiagnostiko prozesu horietako bakoitzean ateratako ikaskuntzak biltzen dira, eta hezkuntza-komunitatearen eskura jartzen dira, eskola-testuinguru bakoitzaren premietara egokitu daitekeen hezkidetzako autodiagnostiko tresna baten bitartez. Beraz, ez da pausoz pauso bete beharreko proposamen itxi bat, ikastetxe eta testuinguru guztientzat balio duen nolabaiteko «errezeta magikoa». Aitzitik, gure proposamena ibiltzen hasteko modu bat da, talde bakoitzak bere premien arabera egokitu, garatu eta moldatzen duen metodologia bat. Tresna hau komeni zaizuen moduan muntatu eta desmuntatzera, berori garatzeko modu berritzaileak bilatzera eta lortutako ikaskuntzak gurekin partekatzera gonbidatzen zaituztegu. Benetan behar dugun hezkidetzako eskola-eredurantz aurrera egitea lortuko dugu, elkarrekin.

02. Geure buruak hezkidetzaren betaurrekoekin BERRIKUSTEA.

Esku artean duzuen dokumentua hezkidetzaren ikuspegitik ikastetxearen autodiagnostikoa egiteko gida metodologikoa da. Xede nagusia da gure hezkuntza-testuinguruaren behaketa eta azterketa gidatzea *hezkidetzaren betaurrekoen* bidez, zuen ikastetxean hezkuntza-jardunbide inklusiboak eta berdintasunekoak sustatzeko funtsezkoak diren eskola-kulturako elementuak identifikatuz eta lehenetsiz. Partaidetzako, hausnarketako eta eraldaketako ibilbide baten hasiera da, eta zuen errealitatearen berezitasunei erantzungo dieten Hezkidetzako Plan bat eginez gauzatzen da.

Orrialde hauetan tresna egokia aurkituko duzue ikusezina agerian jartzeko, izendatzen ez dena izendatzeko eta begirada zorrozteko, ikastetxean geratzen diren fenomenoak, jardunbideak, elkarrekintzak, sinesmenak, aurreiritziak eta estereotipoak identifikatze aldera. Errealitatea «desnaturalizatzea» proposatzen dugu eta, gero, hezkuntza-komunitate osoak parte har dezakeen eraldaketei buruz galdetu, hausnartu eta proposamenak egitea.



Gidak **bi zati** ditu:

- ⚙️ Hezkidetzako autodiagnostiko prozesu bat ezartzeko **lan-metodologia** da, ikastetxearen Hezkidetzako Plana egiteko helburuarekin.
- ⚙️ Behaketarako, azterketarako eta hausnarketarako **tresna**, bost aztertze-bloketan antolatuta.

Esploratu,
erabili,
parte hartu
eta ekin!

03. Hasi aurretik, zer da hezkidetza guretzat?

Hezkidetza sexu orientazio eta genero-identitateen arteko berdintasunean eta inklusioan hezteko estrategia pedagogikoa da, zeinetan pertsonen aniztasuna onartzen eta balioesten den, eta aniztasun horrek ez duen desberdinkeria, desparekotasuneko eta diskriminazioko jardunbiderik ekartzen. Hezkuntza-jardunbide inklusiboak dira eta pertsona guztien hezkuntza dute helburu, alderdi guztietan.

Beraz, hezkidetzaren helburua eskolan dauden diskriminazio-mekanismo guztiak desagerraraztea da, hala egitura formalari buruzkoak nola hezkuntzako ideologiarekin eta jardunbidearekin lotutakoak. Eskola hezkidetzaillearen azken xedea beren errealitateaz arduratzeko gai diren herritarrek sortzea da, hala ekoizpenari nola gizarteari eta familiari dagokienez. Pertsona horiek gai izango dira beren bizi-proiektua askatasunez aukeratzeko eta beren buruak, beren kideak eta ingurune naturala zaintzeko.



Orduan, nolakoa da eskola hezkidetzaillea?

Eskolan gure parametro kulturalak erreproduzitzen dira; balioak, ideiak, aurreiritziak, gizartea eta bertan dugun rola ulertzeko moduak sustatzen ditugu. Sarritan asmo txarrik gabe egiten dugun arren, pertsonen aniztasuna onartzen ez duten desberdinkeria eta desparekotasuneko harremanak sustatzen dituzten jardunbide eta sinesmenak ere erreproduzitzen ditugu. Aniztasunok kulturalak, funtzionalak eta sexu-joerari buruzkoak izan daitezke, genero-aniztasunarekin gurutzatuta, eta funtsezkoak dira «normaltasunaren» ideiaz harago doan benetako hezkidetzaz hitz egiteko.

Illo horretan, eskola hezkidetzaillearen xedea estereotipoak gainditzea da, desberdinkeria eta bazterkeria sortzen duten gizarte-sinesmen eta -jardunbideak agerian jarri eta eraldatzea, eta pertsona guztiek hezkuntzako esperientzia aukera berdintasunean izateko beharrezkoak diren alaketak sustatzea, sexu- eta genero-aniztasuna onartuz eta balioetsiz. Halaber, genero-indarkeria prebenitzeko lan egiten du, kasuak hautemateko estrategiak garatzen ditu eta modu egoki eta koordinatuan erantzuten die erasoei, hezkuntza-komunitatea horretan nahasiz.

Azken batean, eskola hezkidetzailleak arreta jarriko du komunitateko eragile guztien arteko dinamika, harreman eta elkarrekintzetan, hots, ikasleek, irakasleek, familiek eta zuzendaritza-taldeek dituztenetan, pertsona guztiak baitira hezkidetzaren subjektu. Baina, batez ere, horrelako eskolek bere buruari begiratzen diote eta berdintasuneko jardunbide eta sinesmen inklusiboak sustatzen dituzte.

Animatzen al zara eskola hezkidetzaillea sustatzera?

04. Eraldatzeko diagnostikatzea: autodiagnostikoa laneko metodologia gisa.

Zertarako egiten dugu autodiagnostikoa?

- Identifikatzeko zein elementuk zailtzen edo sustatzen duten ikasleen garapen osoa, bertan egoteagatik edo ez egoteagatik.
- Gure erabakiak gertaera frogagarrietan oinarritu daitezen, sinesmen, intuizio, aurreiritzi eta estereotipoetan beharrean.
- Ikastetxean hezkidetza sustatzeko eta Hezkidetza Plana martxan jartzeko aukera ematen duten neurriak lehenetsi, planifikatu eta abiarazteko.
- Hezkidetza-planen jarraipena eta ebaluazioa errazteko.
- Hezkuntza-komunitatearen sentikortze-prozesua errazteko autodiagnostikoaren bidez.

Nor da gure hezkidetzako autodiagnostikoaren subjektua?

Gure diagnostikoak barne hartzen ditu ikastetxeko hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiak: ikasleak, irakasleak, zuzendaritza, irakasle ez diren langileak, familiak, etab.

Zer aztertu nahi dugu?

Ikastetxean hezkidetzako jarduna errazten edo zailtzen duten antolakuntzako, pedagogiako, curriculumeko, harremanetako eta ingurune alderdi guztiak.

Zenbat iraungo du prozesu osoak?

Zenbait ikastetxetan izan dugun esperientzian oinarrituta, autodiagnostikoaren prozesuak eta Hezkidetza Planaren diseinuak ikasturte bat irauten dute. Baina hori inbertitutako baliabide pertsonalen, azterketaren asmoaren eta abarren arabera da. Ilido horretan, ikastetxe bakoitzak bere premia zehatzetara egokitu beharko ditu denborak, betiere lan-erritmo egokia mantenduz. Nolabaiteko jarraitutasuna ez duten prozesu luzeegiak desegin egiten dira, eta ez dute beren ibilbidea bukatzen.




05. Nola eraikitzen dugu autodiagnostikoa?

Hasierako urratsak.



Jarraian, **ALBOAN** erakundeak zenbait ikastetxetan hezkidetzako autodiagnostikoak egiteko erabili duen lan-metodologiaren eskema azalduko dizuegu. Ikusiko duzue ekintzen sekuentzia bat dagoela, zeina, ikastetxe bakoitzaren erritmo eta aukeren arabera, azterketaren, hausnarketaren eta hezkuntza-eragileei egindako kontsultaren ondoriozko emaitzarekin amaitzen den.



EKIN LANARI!

Prozesuaren eskema orokorra ikusi duzue eta, orain, autodiagnostikoa egiteko proposatutako ibilbideko elementu bakoitzarekin zer lortu nahi den zehaztuko dugu:

Talde eragilea osatzea

Helburuak eta lan-proposamena

- ⚙ Jakitea zein diren aurretiko ibilbidea, prozesuaren ildo orokorrak eta autodiagnostikoa egiteko eta Hezkidetza Plana sortzeko faseetarako aurreikusitako ibilbidea.
- ⚙ Motibatzeko, erresistentziak ezagutzeko, indargune eta ahulguneak hautemateko eta kontzeptuak adosteko dinamika.

Talde eragilearentzat aurreikusitako guneak:

- ⚙ Bi orduko saioa.

Lehenengo urratsa izango da hezkidetzako talde eragilea osatzea; talde hori hezkidetzako autodiagnostikoa diseinatu eta koordinatzeaz arduratuko da. Ikastetxean hezkidetzaz arduratzen den pertsona izango da taldearen buru, eta hark gidatu eta dinamizatuko du taldea, ibilbide osoan zehar.

Lehenengo fase honetan, taldeak prozesuaren xehetasunak eta aurreikusitako ibilbidea ezagutuko ditu. Gainera, ikastetxeak hezkidetzaren arloan aurretiaz egindako ibilbidea berrikusiko da. Berrikuspen hori egiteko modu erraz eta argigarria izan daiteke ikastetxearen ibilbidea grafikoki jaso eta bidean gertatutako mugarriak seinalatzea. Ibilbide hori egitean, funtsezkoa da ikastetxea gaur egun dagoen egoerara heltzea ahalbidetu duten pertsonak (izen-abizenekin) eta mugarriak (kanpaina bat, gatazka bat, egoera jakin bat...) identifikatzea. Era berean, talde guztiak prozesuan xede bera izatea eta beren lana erraztu edo oztopatu dezaketen elementuak identifikatzea sustatuko da.

Bigarren saioa hasi aurretik, taldeari hezkidetzako autodiagnostikoa egiteko tresna emango zaio eta zenbait gomendio metodologiko egingo zaizkio, hurrengo saioko edukiak garatzen joan dadin.



Autodiagnostiko Plana egitea.

Helburuak eta lan-proposamena

- ⚙ Autodiagnostikoko tresnaren eta gomendio metodologikoen funtzionamendua berrikustea.
- ⚙ Autodiagnostiko Planaren proposamen bat egitea: gure tresnaren zein alderdi aztertuko ditugu hezkidetzako azterketarako, zein subjektuekin eta zer sakontasunekin, nork aztertuko dute eta noizko izango dute prest azterketa.

Talde eragilearentzat aurreikusitako guneak

- ⚙ Bi orduko saio bat, Autodiagnostiko Plana erabakitzeko.
- ⚙ Ikastetxeko zuzendaritzari aurkeztea, onartzeko.
- ⚙ Sozializazioa: klaustro bat Plana irakasleei aurkezteko eta beste gune batzuk, familieei, ikasleei eta abar aurkezteko.

Bigarren une horretan, autodiagnostikoko tresnari jarraikiz, talde eragileak ikastetxearentzat eskuragarri eta garrantzitsuenak izan daitezkeen analisi-elementuak lehenesteko ariketa bat egingo du. Beraz, kontua izango da Autodiagnostiko Planaren azterketa-xedea asmo handikoa izatea, interesekoa izan dadin, eta horretaz arduratzeko modukoa izatea, taldeak dauden baliabideekin kudeatu ahal izan dezan.

Horregatik, 5 azterketa-blokeetako bakoitzean proposatutako alderdietako bat lehenetsiko da, gutxienez (ikus autodiagnostikoko tresna). Taldeko kide bakoitzak bere proposamena egin eta taldearekin partekatu dezake, adostasunera heltzeko. Azterketaren alderdiak erabaki ondoren, nola neurtuko diren, nork neurtuko dituen eta azterketa noizko egongo den egina zehaztu beharko da.

Informazioa honelako koadro batean jaso daiteke:

Blokeak	Lan-proposamenak	Azterketaren subjektua/ objektua	Nola aztertuko dugu?	Noizko aztertuko dugu?	Nor arduratuko da?
1. blokearen izenburua					
2. blokearen izenburua					
3. blokearen izenburua					
4. blokearen izenburua					
5. blokearen izenburua					

Autodiagnostiko Planean oinarrituta, ikastetxe barruan informazioa eta laguntza eskatzeko premia sortuko da, bai eta ez dagoen informazioa lortzeko neurketa-tresnak sortzekoa ere (inkestak, behaketako metodologiak, etab.). Gure edukalboan.org atarian, «*Hezkidetzako autodiagnostikorako tresna praktikoak*» gida aurkituko duzue; horretan, azterketarako zenbait proposamen jasotzen dira (inkestak, patioa behaketak, dokumentu-azterketa, etab.) eta zuen premietara egokitu ditzakezue.

Autodiagnostiko Planaren proposamena gutxienez ikastetxeko zuzendaritzari helarazi beharko zaio, zeinak berori baliozkotuko duen, edo garatzeko proposamenak egingo dituen. Plana gainerako hezkuntza-komunitateari aurkeztu beharko litzaioke, planean aurreikusitako jarduerak ezagut ditzan eta berorren garapean laguntzeko aukera izan dezan.

Ebidentzien azterketa eta prozesuaren sistematizazioa.

Helburuak eta lan-proposamena

- ⚙ Taldeko kide bakoitzak aztertutakoa partekatu eta erkatzea.
- ⚙ Dokumentu batean jasotzea azterketa-prozesua eta ateratako ondorio nagusiak.

Talde eragilearentzat aurreikusitako guneak

- ⚙ Bi orduko saio bat, baterako azterketa egiteko.
- ⚙ Ordubeteko saio bat, diagnostikoa baliozkotzeko.
- ⚙ Ikastetxeko zuzendaritzari aurkeztea.
- ⚙ Sozializazioa: klaustro bat Autodiagnostikoa irakasleei aurkezteko eta beste gune batzuk, familiei, ikasleei eta abar aurkezteko.



Talde eragileko kide bakoitzak gauzatu dituen azterketak aurkeztuko ditu eta lortutako emaitzak taldearekin erkatuko dira. Emaitzak partekatu ondoren, etorkizuneko esku-hartzeko ildoak bideratzeko ondorioak adostuko dira. Adibidez, inkesten eta guneetan egindako behaketen emaitzak aztertuta, ikus dezakegu ea desorekarik dagoen denboraren eta tokien erabileran, nesken eta mutilen artean, bai eta irakasleen artean ere; hala, ikastetxearen Hezkidetza Planean garatu beharreko ekintza berezietarako lan-ildo bat zabalduko da.

Taldearen buruak dokumentu batean jasoko ditu gauzatutako prozesua (taldearen osaketa, saio-kopurua, aztertutako alderdiak, etab.) eta lortutako ondorioak. Talde eragile osoak baliozkotu eta osatuko du dokumentu hori. Dokumentua osatuta dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzari aurkeztuko zaio eta hezkuntza-komunitateko eragileei helarazteko estrategia bat gauzatuko da.

Autodiagnostikoa ikastetxean sozializatzea.

Prozesu honetako alderidirik baliotsuenetako bat da hezkuntza-komunitateak rol aktiboa izan dezan lortzea, hala autodiagnostikoaren prestaketan nola Hezkidetza Planaren eraikuntzan eta ezarpenean. Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa funtsezkoa da, eta lehentasuna izan behar du autodiagnostikoaren prozesuan. Horretarako, prozesu honetan kontuan hartu beharreko ekintza garrantzitsuenetako bat da lortutako informazioa partekatze eta baterako hausnarketa sustatzeko modua.



Aurretiaz esan dugun moduan, autodiagnostiko-prozesua hasteko modu on bat izan daiteke jarduera eta berori gauzatuko duen taldea aurkeztea klaustroari eta familiei. Horretarako, hitzaldi iradokitzaile bat antolatu beharko dugu, zeinetan adituren batek gaiaren garrantziari buruzko aurkezpen orokor bat egingo duen eta, gero, gure proposamen zehatza aurkeztuko den. Horrek lan-taldea motibatu eta ikastetxe barruan egin daitezkeen aliantzak erraztu ditzake.

Autodiagnostikoa egin eta ondorioak ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztu ondoren, gainerako hezkuntza-komunitateari helaraziko zaio. Horretarako, komunikazio-estrategia desberdinak diseinatu beharko dira komunitatea osatzen duen talde bakoitzarentzat (irakasleak, ikasleak, irakasle ez diren langileak, familiak, etab.). Estrategia erabilgarria izan daiteke aurkikuntza nagusiak formatu erakargarri eta sintetiko batean jasotzea eta partekatzea (dokumentua, posterra edo infografia, bideoa, etab.), eta emaitzen inguruan eztabaidatzeko eta hausnartzeko guneak prestatzea. Adibidez, irakasleen kasuan, klaustro bat erabil dezakegu aurkezpenerako, familiarekin hitzaldi bat antolatu eta ikasleekin tutoretzak erabili, ondorioak aurkeztu eta eztabaidatzeko. Arlo bakoitzetik jasotako iritziak lagungarriak izango zaizkigu Hezkidetza Plana prestatzeko orduan ekintzak lehenesteko.

Nolanahi ere, argi eta garbi utzi behar da autodiagnostiko-prozesua ikastetxe osoaren ekimena dela, nahiz eta lantalde bat izan buru, eta eskola hezkidetzailearen helburua xede partekatua dela.

06. Eta orain, zer?


Hezkidetzako Planaren diseinua.

Zertarako egiten dugu Hezkidetzak Plana?

- ⚙ Denboran antolatzeko helburu eta jarduketak batzuk, zeinen helburua den hezkidetzak eragina izatea ikastetxeko kulturean, politiketan eta jardunbideetan, eta konpetentzia guztien ikaskuntzetan sartzea.
- ⚙ Ikastetxeak eskola hezkidetzakilea eraikitzen duen konpromisoa ikusgai jarri eta ofizial bihurtzeko.
- ⚙ Egindako ibilbidearen eta lortutako aurrerapenen berri eman ahal izateko.
- ⚙ Emandako pausoak ebaluatu eta bideratzeko.

Planaren diseinua


Aurretiaz lortutako diagnostikoan oinarrituta, ikastetxeak bere Hezkidetzak Plana prestatuko du, eta hurrengo urteetan arlo horretan egitea aurreikusitako jarduerak bilduko ditu planean. Plana prestatzeko prozesuaren burua talde eragilea edo jardueren plangintzaz arduratzen den beste edozein talde edo estamentu izan daiteke. Prozesuaren buru den taldeak autodiagnostikoa aztertuko du eta, horretan oinarrituta, hurrengo urteetarako estrategikotzat jotzen diren lan-ildo batzuk lehenetsiko ditu. Lehenesteko ariketa horretan,



kontuan hartuko dira autodiagnostikoa hezkuntza-komunitateari azaltzean jasotako ekarpen guztiak. Ildo bakoitzerako jarduerak, dagozkien adierazleak (diagnostikoan oinarrituak) eta kronograma zehaztuko dira. Planaren eskema honako hau izan daiteke:

- ⚙ Sarrera: ikastetxearen eta Plana gauzatzeko arrazoiaren aurkezpena.
- ⚙ Gure ikastetxea: ikastetxearen eta hezkidetzaren arloan aurretiaz egindako ibilbidearen deskribapena.
- ⚙ Autodiagnostikoa: Autodiagnostiko-Prozesuaren deskribapena.
- ⚙ Autodiagnostikoaren ondorioak.
- ⚙ Ekintzak, adierazleak eta betearazteaz arduratzen direnak.
- ⚙ Kronograma.
- ⚙ Jarraipena eta ebaluazioa.

Hezkidetzak Planak 2 eta 4 urte bitarteko indarraldia izan dezake; ondoren, plana ebaluatu eta diagnostiko berria gauzatu da. Diagnostiko fasean bezala, funtsezkoa da Hezkuntza Plana hezkuntza-komunitatean sozializatzeko beharrezkoak diren denbora eta baliabideak planifikatu eta edukitzea, behar bezala barneratu dezaten.



M A M E U A I U A A

07. Diagnostiko eta hezkidetzaren plan egokiak prestatzeko gomendioak.

Ikastetxe askori lagundu diegu beren hezkidetzako autodiagnostiko-prozesuetan; horri esker, zenbait ikaskuntza praktikoa lortu ditugu, eta erabilgarriak izan daitezke beren autodiagnostiko-prozesua hasi nahi dutenentzat. Jarraian, zenbait gomendio emango dizkizuegu; espero dugu zuen prozesua bideratzen lagunduko dizuela.

1

Autodiagnostikoaren irismena dimentsionatzea

Hezkidetzako autodiagnostiko-prozesu perfektuak ikastetxe osoa eta horren ingurua hartuko lituzke barne, alderdi guztietan, eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztiak kontuan hartuta. Zenbat eta sakon eta osoagoa izan diagnostikoa, orduan eta erraztasun handiagoak emango dizkigu gure ikastetxearen errealitatean eragina izango duen ekintza-plan bat prestatzeko. Alabaina, komenigarria da indarrak neurtzea eta ikastetxearentzat eskuragarri eta garrantzitsuenak diren azterketa-elementuak lehenestea. Azterketa-objektu zabal eta sakonegia edukitzea gehiegizko erronka izan daiteke dauden baliabideentzat, eta prozesu osoa blokeatu dezake. Hobe da hurbileko helburu sinpleak ezartzea, egindako ahaleginekin bat etorritik, emaitzarik izango ez duten plan handietan galtzea baino.

2

Talde eragilea osatzea

Autodiagnostikoa egiteko talde eragilea osatzen duten pertsonak hezkidetzaren nolabaiteko ezagutza eta harekiko sentikortasuna izan beharko lukete. Hoberena litzateke barne hartzea, batetik, ikastetxean nolabaiteko ibilbidea duten pertsonak, aurretiko ibilbide osoaren ikuspegia izateko, eta, bestetik, berrikiago sartu direnak, freskotasuna eta iraganarekiko loturarik gabeko begirada ematen dutelako. Komenigarria da askotariko profilak egotea (generoa, adina, prestakuntza-zikloak, hezkuntza-komunitateko eragileak, etab.), betiere taldearen eraginkortasunarekin orekatuta. Taldeari legitimitatea emateko, ezinbestekoa da ikastetxean nolabaiteko aginpidea duten pertsonen partaidetza izatea; esaterako, zuzendaritza-taldekoak izan daitezke, edo ikastetxean egin duten ibilbideagatik onarpen berezia dutenak. Hala, jendeak taldea balioetsi eta onartuko du, eta, horri esker, taldearen informazio-eskaeretara irekiago egongo dira eta hobeto hartuko dituzte gomendioak.

3

Begirada konstruktiboa

Autodiagnostiko-prozesua, berez, ikaskuntzako prozesua eta hezkidetzako ekintza da. Komeni da ikastetxean gauzatutako aurrerapen txiki guztiak ekartzea eta berorien garrantzia azpimarratzea, baita hezkidetzako aurrerapen moduan identifikatu ez direnak ere. Gainera, komenigarria da gure azterketa ikuspegi kritiko konstruktibotik egitea, aurreratzeko aukera bilatuz eta alde batera utzita errua eta zigorra.

4

Sinbolismoaren garrantzia

Izena duena bada. Komeni da hezkidetzaren taldeek irudi identitario bat izatea, hots, izena eta logoa. Gainera, oso komenigarria da taldeak ikastetxearen agindu argi eta publiko bat izatea, eta, lehenago aipatu dugun moduan, zuzendaritza-taldeko norbaitek taldearen parte hartzea, halako moldez non taldearen jardura ikastetxearen estrategia osatzen duen zatitzat hartuko baita. Era berean, komeni da gure proposamenak sozializatzeko ikastetxeko gune sinbolikoak erabiltzea: patioa, korridoreak, mezu espezifikoak dituzten gelak, etab.

5

Talde egonkor eta koordinatuak

Hezkidetzako taldeek jarraitutasuna izan behar dute, diagnostikoko faseaz harago, eta nolabaiteko aldizkakotasunaz bildu behar dira. Horrela soilik lortuko dute heltzea eta beren ahalmen guztia garatzea. Komenigarria litzateke taldeek beharrezko denbora izatea beren lana egiteko (ordubete edo bi ordu astean) eta taldeko ordutegiak koordinatzea, pertsona guztiek ordutegi berberak liberatu ditzaten. Era berean, komeni da kideek ikastetxeko beste taldeetan duten parte-hartzea mugatzea. Batzuetan, zenbait profilek alderdi askotako rolak dituztenean, beren lan-karga jasanezin bihurtzen da. Gainera, taldeen txandakatzeak zailago egiten du hezkidetzaren planen sakontasuna, jarraitutasuna eta jasagarritasuna. Taldea egonkorra bada, errazagoa izango da diagnostiko-prozesua berriz aplikatzea etorkizunean, bai eta prozesuan lortutako ikaskuntzak txertatzea ere.

6

Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa

Lehenago aipatu dugun moduan, komenigarria da behar den denbora ematea eta ahalginak egitea autodiagnostiko-prozesua eta horren ondoriozko Hezkidetzaren Plana hezkuntza-komunitate osoan sozializatzeko, hots, irakasleei, ikasleei, irakasle ez diren langileei, familiei eta abarri helarazteko. Gainera, autodiagnostiko-prozesua komunitatea osatzen duten taldeen ikuspegiak elikatu beharko litzateke, eta ondoriozko Hezkidetzaren Planean jasotako ekintzek komunitatea haietan nahasi beharko lukete. Prozesu hori besterena eta inposatua dela sentitzen badute, oso litekeena da erresistentzia asko izatea ikastetxean eta ikastetxetik kanpo. Aldiz, ondo kudeatzen badira, aldaketa-prozesuek aliantza indartsuak susta ditzakete hezkuntza-eragileen artean.

7

Prestakuntza lehenago, bitartean eta gero

Beharrezkoa da erakundeek denbora inbertitzea hezkuntza-komunitate osoa eta, bereziki, irakasleak prestatzen eta sentikortzen. Komeni da autodiagnostiko-fasea baino lehen eta fasearen bitartean prestakuntzak antolatzea, hezkuntza-komunitatea gaitik hurbil senti dadin. Erakunde sozialek, unibertsitateek eta abarrek gure inguruan sustatzen dituzten prestakuntza-aukeretan arreta jarri behar da. Interesgarriak dira gune teorikoak, zeregina zorrotasunez eta fidagarritasunez gauzatzeko aukera ematen digutelako, baina baita arlo praktikotik ikasteko aukera ematen duten esperientzia-trukeko guneak ere.

8

Tutoretza-plana

Hezkidetzaren garrantzia hedatzeko funtsezko elementua da tutoretza-planean hezkidetzako jarduerak sartzea. Komenigarria litzateke ikastetxeek gutxienez tutoretza bat gordetzea hiru hilabetez, hezkidetzarekin lotutako gaiak jorratzeko. Ildo horretan, aukera ederra da ikastetxeetan hezkidetzaren lantzen duten erakundeak horretara ekartzea.

9

Kanpoko aholkularitza

Kanpoko aholkularitza oso erabilgarria izan daiteke, taldeentzako laneko gida modura baliagarria delako, motibazioa eta kementa ematen duelako, prozedurak sinplifikatzen dituelako eta taldea lanean hasteko katalizatzailea izan daitekeelako. Gainera, kanpoko laguntzak ikastetxetik kanpoko ikuspegiak ematen du, eta prozesuari objektibotasun handiagoa ematen laguntzen du. Alabaina, beharrezkoa da laguntza hori denboran zehar mantentzea eta prozesuan garatutako gaitasunak ikastetxean ezarrita geratzea; osterantzean, autodiagnostiko-prozesua amaitu ondoren, ikastetxearen egunerokotasunagatik eta erreferente argi bat ez izateagatik, lan-taldearen dinamika desegiteko eta denborarekin galtzeko arriskua egongo da.

08. Autodiagnostikorako tresna: behaketa eta azterketa errazteko 5 bloke.

Autodiagnostikorako tresna hau bost bloketan dago banatuta; blokeok hezkidetzarekin lotutako askotariko alderdiak biltzen dituzte, hezkuntzaren askotariko alderdietan. Tresna erabiltzeko, atal guztiak sakon irakurtzea gomendatzen dugu, bai eta bereizketako ariketa bat egitea ere, aberastasunik handiena eman diezazueketen eta zuen aukerei begira eskuragarrienak izan daitezkeen azterketa-elementuak lehenesteko.

Ikusiko duzue bloke bakoitzak jasotzen dituen iturri eta eremuen bitartez azterketarako informazioa lor daitekeela. Horrekin batera, zenbait galdera, adibide eta gomendio emango dira, hausnarketa bideratzeko.

Bloke edo kategoria bakoitzeko gutxienez azterketa-elementu bat aukeratzea gomendatzen dugu. Elementu bakoitzaren azterketaren sakontasuna ikastetxe bakoitzaren aukeren arabera izango da. Informazioa biltzeko, sarritan beharrezkoa izango da tresnak *ad hoc* sortzea, asmatuta edo lehenagoko beste esperientzia batzuetatik egokituta. Hezkidetzako azterketarako zenbait pista praktikoa aurki ditzakezue gure edukalboan.org atarian dagoen «Hezkidetzako autodiagnostikorako tresna praktikoa» gidan.

Has gaitezen!



1. Blokea

Irakaskuntzako eta ikaskuntzako ereduak, erakundeen politikak eta ekintza-planak.



Azterketa-blokea	
Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Ikastetxearen dokumentu ofizialak: Urteko Programazio Orokorra, Hezkuntza Proiektua, Tutoretza Ekintzako Plana, Bizikidetzaren Plana, ikastetxeko programazioak, etab.	Ikustea ea ikastetxeko dokumentu ofizialetan berariaz agertzen den berdintasuneko helburua, eta nola zehazten den helburu hori aniztasun osoa barne hartzen duen berdintasuneko ikuspegitik.
Tutoretza-ekintza eta orientazio akademiko eta profesionala	Behatzea ea tutoretza-ekintzan honako alderdi hauek lantzen diren: emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna etxeko lanetan, produktibitatearen zentraltasuna zainketa-arekin eta bizitzaren jasagarritasunarekin lotutako alderdien aldean eta diskriminaziora daramaten estereotipoen (jatorri, arraza, erlijio, sexual eta genero) aurreko jarrera kritikoa, besteak beste.
Hezkidetzari buruzko politika espezifikoak ikastetxean	Ba al daude hezkidetzako politikak ikastetxean? Hala bada, zertan datza? Nolako ezarpen-maila dute?
Ikastetxearen datuak	Identifikatzea zer datu aurkezten diren, generoaren (emakume, gizon, genero ez-binario) arabera banatuta dauden eta zer egiten den haiekin.
Berdintasuneko ordezkaria eta/edo taldea Hezkidetzaren arduraduna	Zer kualifikazio eta eginkizun ditu? Koordinazio ona al du zuzendaritzarekin, klustroarekin, familiekin eta ikasleekin? Ba al du aginpiderik? Kasu egiten zaio eta haren lanean sinesten da? Haren lana balioesten da?
Aliantzak eta hitzarmenak kanpoko eragileekin, berdintasunaren eta aniztasunaren arloan	Adibidez, prestakuntzako eta hezkuntza-berrikuntzarako zentroak, udaletxeak, tokiko erakundeak, GKEak, emakumeen elkarteak, tokiko talde feministak, etab.
Eskolaz kanpoko jarduerak	Nolako jarduerak gauzatzen dira? Zergatik? Nork hartzen dute parte? Nor dira buru haietan? Zer gune betetzen dituzte? Zein balioesten dira gehien?

Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Ikastetxearen politikak eta taldeak (Justizia eta Elkartasuna, Normalkuntza, Pastoral, etab.):	Berdintasunarekin eta aniztasun sexual eta genero identitatearekin lotutako gaiak lantzen dituzten berrikustea. Nork parte hartzen duen, buru zein diren eta abar egiaztatzea.
Prestakuntza Plana	Berrikustea ea hezkidetzaren irakasleen prestakuntzako plan guztietan dagoen. Ikastetxean jasotako prestakuntzen historikoa egitea.
Ikastetxearen irudia	Berrikustea nolako den ikastetxeko webgunearen irudia (hizkuntza, ilustrazioak, estereotipoak, etab.), aurkezpen materiala, memorien, elkarrizketen, sare sozial ofiziala eta ez-ofiziala, etab. Halaber, korridore, ikasgela, bulego, jangela eta abarretako hormetan dagoena berrikustea.
Hezkidetzaren historia	Berrikustea zein izan diren ikastetxearen mugarririk garrantzitsuenak, hezkidetzaren arloan.
Ospakizun puntualak	Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) eta azaroaren 25a (Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna) ospatzen dira? Eta maiatzaren 17a (LGTBI fobiaren aurkako Eguna)? Liburuaren Eguna edo Bakearen Eguna ospatzen direnean, genero-ikuspegia ematen zaie? Eta ikastetxearen egunaren kasuan? Nork hartzen dute parte eta zer jarrera sortzen dira?
Eskola-liburutegia	Gaur egun liburutegian dagoen materiala berrikustea: zenbat emakume agertzen diren liburuetan; zein ekintzatan agertzen diren; zer estereotipo transmititzen dituzten; nor den protagonista obretan; zein pertsonaia lotzen diren etxeko lanekin, zaintzarekin, laneko arrakastarekin, abenturarekin eta kirolarekin; zenbat emakumezko idazleren liburuak dauden apaletan, etab. Era berean, zenbat materialetan jorratzen da sexu- eta genero-aniztasuna? Ba al daude era irekian LGTBQ kolektiboko kide aldarrikatu direnen lanak? Ba al dago hezkidetzari buruzko zerbaite? Eta feminismoari buruz?
Aurrekontua	Berrikustea ea badagoen hezkidetzarako aurrekontu-partidarik.

Azterketa-blokea	
Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Giza Baliabideak – irakasleak eta irakasle ez direnak	Nolakoa da ikastetxearen egitura orokorra? Generoaren arabera banatuta.
Irakasleak	Nola daude egituratuta irakasleak etapa, irakasgai, erantzukizuneko postu, batzorde, talde eta abarretan? Datuak banatzea, generoaren eta erabaki-maila hierarkikoaren arabera.
Ikasleak	Berrikustea zenbat ikasle dauden etapa, gradu, hautazko eta curriculumez kanpoko jarduera bakoitzeko.
Irakaskuntzakoak ez diren langileak	Nola egituratzen dira irakasle ez diren langileak, generoaren arabera banatuta. Irakasle ez diren langileak balioestea / ikusgai jartzea. Balio eta ikusgaitasun txikia duten zereginak dira, edo funtsezkotzat hartzen dira ikastetxearen funtzionamendurako?
Familiak	Berrikustea nolako den guraso elkarleen egitura, nor duten buru, nor diren bozeramaile, nork parte hartzen duen. Behatzea familia-egiturak (tradizionalak, guraso bakarrekoak, homoparentalak, zabalak...) eta nor diren ikastetxearekin harremanetan jartzeko pertsonak.s
Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko guneak	Nolako partaidetza-guneak dauden (ikasleak, irakasleak, familiak, eskola-kontseilua), nork parte hartzen duen, nor diren buru, nork erabakitzen duen, etab.
Taldeen barne-dinamikak	Nolako harremanak dauden talde bakoitzaren barruan (irakasle ez diren langileak, irakasleak, ikasleak, familiak) eta haien artean. Botere-harremanak gertatzen dira?

3. Blokea

Akademia- eta curriculum-jarduerak.



Azterketa-blokea	
Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Curriculum-a	Berrikustea ea irakasgaietan edukiak, ikuspegia eta trebetasunen garapena genero eta sexu anitasunaren ikuspegitik bideratzen diren. Berrikustea ea gorputzari, afektibitateari eta emozioari buruzko edukiak dauden ala ez curriculumean. Berrikuspen-eremua zehaztea (etapaka, zikloka...).
Ekintza zehatzak (nahiz eta ez egon ikastetxearen ekintza sistematiko eta globalizatu baten barnean)	Aztertzea generoaren, berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren eta LGTBI kolektiboak jasaten duen bullyingaren ikuspegitik jorratzen diren aurkezpenak, kanpoko tailerrak eta tutoretzak. Identifikatzea hizkuntzaren erabilera ez-sexistari, eta ez heteronormatiboari, emakumeen lana agerian jartzeari, emakumeek historian izandako rolari eta abarri buruzko programazio eta banakako ekintzetan kokatzen diren unitate didaktikoak.
Materialak eta testuliburuak	Aztertzea ea testuliburuak, materialek, unitate didaktikoak, testuek, adibideak eta ilustrazioak berdintasuna eta aniztasuna balio gisa transmititzen duten edo, alderantziz, estereotipoak eta genero-rol bitarrak sustatzen dituzten. Behatzea ea erabiltzen diren hizkuntza eta irudiak sexistak diren edo estereotipoetan oinarritzen diren, esaterako: gizonak agertzea edo ez agertzea pertsonen zainketari, etxeko lanei edo pribatutasunari buruzko gaietan; emakumeak agertzea edo ez agertzea zientziarekin, teknologiarekin, historiarekin, kirolarekin, ekimen pertsonalarekin eta arrakasta profesionalarekin lotutako gaietan, besteak beste. Berrikustea zenbat aldiz agertzen diren emakumeak eta gizonak, nork duen protagonismo handiagoa. Berrikustea ea emakumeen eskubideen aldeko borrokaren historia eta feminismoaren kontzeptua islatzen diren, eta pertsonaia historikoen lesbianismoa, transexualitatea eta abarrak isilarazten diren, besteak beste. Beste kultura batzuetako emakume eta gizonen presentzia aztertzea, kuantitatiboki eta kualitatiboki.

Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Teknologien erabilera	Zein ikasgaitan erabiltzen dira teknologia berriak eta nork ematen dituzte? Teknologia berriak modu bidezkoan erabiltzen dira ikasgelan?
Curriculum ezkutua	Ikasgeletan gertatzen diren dinamikak behatzea, generoaren arabera bereizita hautemateko nori jartzen zaion arreta gehien, nor balioesten den gehien, zer itxaropen dagoen ikasleei buruz, nolako jarduerak erabiltzen diren, nolako lidergo motak sustatzen diren, nolako partaidetza motak gauzatzen diren, hizkuntza inklusiboa den eta aniztasuna barne hartzen duen, etab.
Ikasgelako liburutegiak	Identifikatzea eta aztertzea zenbat argitalpen diren emakumezko idazleenak eta zenbat gizonezkoenak, eta ea estereotipoak sustatzen dituzten. Galdetzea ea genero-irizpideak eta hezkidetzako ikuspegia erabiltzen diren liburuak erostean eta dohaintzak onartzean.



4. Blokea

Ikastetxeko guneak, imajinarioak eta kultura.



Azterketa-blokea	
Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Karteletan, familiei bidalitako komunikazioetan, barneko komunikazioetan, noten liburuxketan eta abarretan erabilitako hizkuntza.	Identifikatzea ea idatzizko hizkuntza modu sexistan erabiltzen den edo, aldiz, inklusiboa egiteko ahalegina egiten den.
Ahozko hizkuntza	Ahozko hizkuntza aztertzea erregistro formalean, hots, bileretan, klaustroetan eta ekitaldi publikoetan; eta erregistro informalean, hots, ikastetxeko ohiko komunikazioetan.
Guneak	Identifikatzea ikasleek nola erabiltzen dituzten patioak, kiroleko pabiloiak, bizikidetzako guneak eta ikasgelak. Nork okupatzen dituzte tokien erdiguneak, nor geratzen dira ertzetan? Aztertu guneak apaintzen dituzten irudiak.
Klaustroa	Zer gai lantzen dira klaustroan? Nola egiten da lan (hitzaldi magistralak, dinamikak...)? Nork hartzen dute parte? Partaidetzako denborak? Nor dira buru? Gizonei emakumeei baino kasu handiagoa egiten zaie, aginpide handiagoa dute? Nork eta nola hartzen dituzte erabakiak?
Partaidetzako eta erabakiak hartzeko guneak (ikasleak, irakasleak eta familiak)	Identifikatzea nork parte hartzen duten eta nor diren protagonista, nor diren buru, nork bideratzen dituzten eztabaidak, nork ez duten parte hartzen, nori aitortzen zaion aginpide gehiago, etab.

Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Hezkidetzari eta mugimendu feministari buruzko pertzepzioak	Irakasleen eta irakasle ez diren langileen pertzepzioa identifikatzea: jarrerak, gaitasunak, zailtasunak, itxaropena, besteak beste. Ikasleen pertzepzioa identifikatzea: jarrerak, partaidetza, lidergoa, zainketak, errendimendu akademikoa, laneko orientazioa, besteak beste. Familien pertzepzioa identifikatzea: jarrerak, gaitasunak, itxaropena, besteak beste. Zuzendaritza-taldearen pertzepzioa identifikatzea: jarrerak, gaitasunak, zailtasunak, itxaropena, besteak beste.
Bizikidetza Plana	Identifikatzea ea planean gai hauei buruzko jarduerak dauden: maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntza ikasleetan, haien bizi-ideologiaren oinarri diren genero-arloko estereotipoak eta aurreiritziak, eguneroko indarkeriak hautematea (mikroindarkeriak/ mikromatxismoak), sexu orientazioa eta genero aniztasunagatik ikastetxean gerta daitezkeen diskriminazioak. Aniztasunaren aldeko Bizikidetza Plan positiboa proposatu da? «Heterosexualitate-presuntzioa» gertatzen da?
Genero-indarkeria	Aztertzea ea genero-indarkeria izendatzen eta ikusgai jartzen den ikastetxean. Genero-indarkeria salatzekeo kanpainarik gauzatzen da? Mobilizaziorik egiten da ikastetxean?



5. Blokea

Norbera zaintzea, elkar zaintzea eta ingurunea zaintzea.



Azterketa-blokea	
Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Hezkuntza afektibo-sexuala	Hezkuntza afektibo-sexuala: biologiaren/ugalketaren ikuspegitik bideratzen da edota afektibitatearekin, harremanekin, identitate-eraikuntzarekin eta gorputzen aniztasuna onartzearekin lotutako alderdiak lantzen dira?
Hezkuntza emozionala	Ikustea ea hezkuntza-komunitateak noziorik duen hezkuntza emozionalari buruz, garrantzitsua iruditzen zaion eta lantzen duen. Irakasleak ba al du prestakuntzarik hezkuntza emozionalean? Nola bideratzen da emozioen lana hezkuntzako jardunbidean? Emoziogramak/emozionarioak eta antzeko proposamenak daude?
Eztabaida seguruko guneak	Hezkuntza-komunitateko pertsonak «segurutzat» jotzen dituzten eztabaida-guneak eskura dituztela sentitzen al dute? Guneok bizikidetza hobetzeko asmoz sortzen dira?
Ikastetxearen orientazioa	Hezkuntza-komunitateak ezagutzen al du ikastetxeko orientazio-sailaren eginkizuna? Sailaren balorazioa, ematen zaion erabilera, hurbiltasuna, irakasleekiko eta familiekiko harremana.
Gatazken kudeaketa	Behatzea nola konpontzen diren gatazkak, nork erabiltzen duen indarkeria, nola erregistratzen den. Egiaztatzea ea sexuaren arabera bereizitako datuak ematen diren. Zein da eguneroko bizitzako indarkeriekiko (mikroindarkeriak/mikromatxismoak) tolerantzia-maila? Maskulinitate hegemonikoen eta indarkeriaren arteko lotura lantzen da?

Informazio-iturria edo -eremua	Zer begiratu behar da? Galdera orientatzaileak edo gomendioak
Familiarikiko harremana	Ikastetxeak familiarekin erlazionatzeko duen kultura aztertzea. Zertarako biltzen dira? Zenbat aldiz urtean? Topaketak ebaluatzen dira? Ikastetxeak ba al du baterako estrategiarik? Nola egiten da ikasturteko lehenengo bilera? Familiak eta irakasleak zainduta daudela sentitzen dute? Familiarekin harremantzean, hauen aniztasuna kontutan hartzen al da? Jarraipeneko bilerez gain, zer rol dute familiak ikastetxearen hezkuntza-proiektua zehazteko orduan?
Zainketaren kultura	Nola lantzen da curriculumean? Norbera, beste pertsona batzuk eta natura zaintzeko gai eta arduradun diren herritarrak haztea sustatu nahi du ikastetxeak? Zainketako harremanak eta jardunbideak egiten dira ikastetxean? Jardutean eta erabakiak hartzean, zainketen etiketik abiatzen al da?
Giza Eskubideak	Pertsona guztiak, beren jatorria gorabehera, berdina eta duinak direla transmititzen da? Ikastetxeak Giza Eskubideekiko konpromisoa sustatzen du, haien aniztasuna onartzetik abiatuta?
Ingurunea zaintzea	Eraldaketa ekosozialean hezteko gunerik badago? Ikastetxeak baliabideetan jasagarria den politika dauka? Ekologia kultura-aldaketarekin lotzen da?



Bat egin gure ikaskuntza-komunitatearekin!

Elkartasunaren aldeko Edukalboan hezitzaile-sarean (edukalboan.org) autodiagnostikoko prozesua azaltzen duten bideoak, askotariko azterketak gauzatzeko pista metodologikoak eta **ALBOAN** erakundearen beste hezkuntza-proposamen asko aurkituko dituzue. Gainera, zuen esperientzia eta ikaskuntzak gure sarean partekatzeraz gonbidatzen zaituztegu, hala, beste irakasle batzuek horretatik edan ahalko baitute.

BAT EGIN
GUREKIN!



ZAIN GAITUZUE!

www.edukalboan.org

